

Klimaren erotzeak kanporatutako etorkinei, guk hesi militarizatuak



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Lehorte, uholde eta ekaitz erraldoietatik ihesi klimaren aldaketak kaltetutako gero eta jende gehiago datorrelarik mundu aberatserantz, urte ederrak bizi ditu mugak gotortzearen industriak. Todd Miller kazetari eta migrazioetan adituak *Hesiarekin borrokan* liburuan azaltzen du frontearen gaurko argazki orokorra: zer galdurik gabe datozen etorkinen epopeia, multinazionalak mugen militarizazioarekin egiten duten urrea, justiziaren aldeko talde militanten borrokak.

2016ko apirilean Tucsongo (AEB) epaitegian Ignacio Sarabia mexikarra epaitu zuten muga baimenik gabe zeharkatzeagatik. Auzia ondo pasa zedin abokatuak emandako aholkuak bat batean ahaztuta, hizketan hasi zitzaion Jacqueline Rateau epaileari: "Nire umeak lau hilabete dauzka eta AEBetako herritarr a da. Bihotzeko arazo batekin sortu zen eta operatu egin behar dute. Horra zergatik nagoen hemen zure aurrean". Saiaitu zen bere ingeles kaxkarrezko hitzak osatzen keinuekin, baina gainean zeramatzan eskuburdinek eragotzi zituen.

Epaile andereak erantzun zion sentitzen zuela baina AEBetan ezin zela ilegalki sartu, etortzeko modu legalen bat aurkitu beharko zuela. "Semea hobetzen denean, emazteak eta biek bisitatu ahal izango zaituzte etxean, Mexikon. Edo bestela, espetxean bisitatu beharko zaituzte. Zeuk ikusi ea umearentzako hobia den handitzea bere aita bisitatzu presondegian". Ondoren, Sarabia eta berekin epaitutako beste zazpi gizonak 60 eta 180 egun arteko espetxealdira zigortu zituen.

Tucsoneko egun hartako entzule bakanen artean zegoen Todd Miller kazetaria, etorkinen laguntza taldeetan ere inplikaturik. Ordurako argitaratua zuen *Mugako patruilen nazioa: barne segurtasunaren fronteko kronikak*. Orintsu argitaratutako *Hesiarekin borrokan: klimaren aldaketa, migrazioa eta barne segurtasuna* liburu berrian kontatu du epaiketa hartan ezin zuela burutik ken-

du hilabete berean sortuak zirela bere semea eta Ignacio Sarabiak aipatzen zuena. Bakarrik, Sarabiarenak hurrengo aldiz aita ikusi beharko zuela espetxeren batean, "bere aita edukitzeagatik egunean 124 dolar irabazten dituen espetxe pribatuan".

Todd Millerrek liburuan erakusten duenez, herrialde asko dirutzak ari dira inbertitzen mugen militarizazioan, aurrea hartzeko klimaren aldaketak Karibe bezala Afrikan eta beste askotan eragingo dituen populazioen mugimenduei. Filipinetan, Mexiko hegoaldean, Hondurasen, Frantzia edo AEB-Mexiko mugaldeen ikusitakoekin, Millerrek josi ditu etxetik urrundutako jendeen historiak estatuek beren mugetan baina baita beren barnean ere ezarritako segurtasun eta militarizazio egituren deskribapenekin. Azken batean, elkarri lotuta baitoaz klimaren aldaketa jokatzen den biltzar dotoreen guneak eta bizirauteko aukera bila datozen jendeei bidea ixteko eraikitzen diren hesiak.

Klimaren aldaketaren aro honetan, dio Millerrek, mundu berean bizi gara alde batetik txit aberatsak, mugarik gabe kontsumitu, eduki eta xahutzen jarraitu nahi dutenak, baina baita klase ertainetakoak ere, jasagarriak ez diren bizimodu kontsumista daramatenak. Eta beste aldetik daude aipatu epaiketan ikusi ditugunak bezalako milioika, beren jaioterrietan biziraun ahal izateko zeuzkaten baliabide oro kendu dietenak. Eta batzuen eta besteen tar-

tean daude militarizatutako mugaldea, munduaren ordena bidegabe bat indartzeko antolatutak.

"Hedatuz doan estatu zelatatzaile honi iheslarien historia ez zaio axola. Honaino zergatik iritsi diren ez dio axola. Aurpegiak dauzkaten arren, aurpegiarik gabeak dira. Zuk ikusi dezakezun bakarra da etorkin talde bat eskuak lotuta epaileen aurrera iristen, inporta duen informazio bakarra da ea hemen baimenarekin ala baimenik gabe sartu diren".

Klimaren iheslariak, mehatxu globala
Ezein etorkini aitortzen ez zaion arren *klimaren errefuxiatu* izaera, estatuek ondo dakite badirela, eta gero eta gehiago izango direla. AEBetako militarrei dagokienez, Pentagonoak duela hamabost urte, 2003an, txosten bat zabaldu zuen izen honekin: "*Klimaren aldaketa bortitz baten agertokia eta bere ondorioak AEBen nazio segurtasunerako*". Tartean zioen: "AEBen mugak oro indartu behar dira, atzera botatzeko Karibeko uharteetatik (arazo bereziki larria), Mexikotik eta Hego Amerikatik gure gogoz kontra datozen etorkin gosetuak".

Klimaren aldaketak hainbat aurpegi erakusten ditu dagoeneko: gero eta indartsuago jotzen duten super-ekaitzak, uholdeak, lehorteak, itsas mailaren igoerak irensten dituen lurak, ur gezen gazitzea... Horien ondorioz 2008 eta 2015 artean urtero 26 milioi jendeke alde egin zuen bere sorterritik. Gerrak lekualdatutakoena baino kopuru han-





Don Bartlettik 'Los Angeles Times'-en 1993an argitaratu zuen argazki hau: kontrata bateko obreroak Kaliforniako autopista zati horretan etorkinei pasabidea eragozteko hesia ari ziren eraikitzen, ondoan zeukatela aurreko urteetan alderdi haietan ezagunak ziren "Etorkinak korrika" bataiatutako afixetako bat. "Kontuz, etorkinak!" ere izendatu zitekeen irudiak auto gidariak ohartarazi nahi zituen, dozenaka baitziren gaueko lasterkaldietan bizia galtzen zuten latino ilegalak. 25 urte geroago, askoz militarizatuago daude mugak.

diagoak dira. Gehienak hurbileko herri eta hirietara doaz aterpe bila, batzuk ausartzen dira aberatsen paradisuetaraino.

2050erako kalkuluen arabera 250 eta 1.000 milioi pertsonak klimagatik ihes egitea espero da. Koko Warner Nazio Batuen Erakundeko unibertsitateko adituak esaten du, zenbaki zehatzen inguruan eztabaida egon arren, migrazioekin ikusiko dena harrigarria izango dela eta "historian ezagutu den beste edozer gaitutako duela".

Herialde aberatsetara hurbilduko direnek, hasteko, hesiekin egingo dute topo. Berlingo murru famatua bota zutenean, 1989an, 15 harresi handi zeuden munduan; gaur 70 dira, bi herenak 2011z geroztik eraikiak.

Daukaten hormigoi edo altzairuaz gain, ordea, orain muga hesitzea *high*

tech da: gauez ikusteko kamerak, energia termikoa behatzen dutenak, edozein mugimendu hautemateko radar sistemak, droneak, ibilgailu blindatuak, komando eta kontrol eraikuntzak, base militar operatiboak... Gehi horien bidez muga baimenik gabe zeharkatzen harrapatutakoak kopuru handitan atxilotzeko presondegiak eta kanporatzeko logistika osoa. AEBetako gai omen da urtean 400.000 pertsona kanporatzeko.

"XX. mende amaieratik hasita -idatzi du Millerrek-, XXI.aren historiak bilduko du nola nazio-estatuak itxi eta militarizatu zituzten beren mugak munduko jende txiro eta baztertuenentzako. Baina baita ere mugak erabat zabaldu zituztela munduko aginteen eta negozioen jabe diren klaseentzako".

Europak ere, Apple bezalako multinazional batek 13.000 milioi euroko

zergak kobratzeko sustantzia egiten ez duen Europak, bere mugak militariki gotortzeko estrategia bera darama, klase guztietako hesiak eraikitzearekin batera -Bilboko portukoa ez da izanen azkena- zuloren batetik sartu ostean harrapatutako etorkinak atxilotzeko espetxeak antolatuz, hala nola Espainiak azaroan Archidonan ireki duena.

Muga militarizazioaren hurrengo atala etorkin ilegalei laguntzen dieten herritar eta taldeen kontrako kriminalizazioa izango da. Zehazkiago, izaten hasi da. *Solidaritate delitua* isun eta espetxez zigortzen hasi dira epaileak, erabaki balute bezala jende zintzoa izatea dela mendi elurtuetatik ia larru bizirik datozenei salda beroa edo itsaso zakaurrean jostailuzko txalupetan arriskatzen direnei txikota eskaintzea. ■





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




50 urtez elkarrekin